

# Txillardegi, eztabaidatua

Eskuindarrentzat lehen Aresti izan zen bezala, orain Txillardegi da, dirudienez, ezkertiar batzurentzat «l'enfant terrible».

Arestik, 1964. 'urtean «Harri eta Herri» liburua argitaratu zuenean, izugarritzko zalaparta sortu zuen; eta «Zeruko Argia» astekarian idazten zituen lanak, bortizki kritikatuak eta atakatuak izaten ziren. Gaur Txillardegirekin gertatzen den bezalaxe. Eta garai hartan Arestiren alde agertu nintzen legez, gaur Txillardegiren alde agertzen naiz.

Aresti eta Txillardegiren arteko gonbaraketa hau oso interesgarria iruditzen zait. Biek, nork bere alde-tik, euskal literatura irauli egin zuten. Izpiritu sortzaileak dira. Gauzak garrazkiro esaten dituzten pentsalari bi dira. Esan behar dutena, biluzik esaten dute, zurikeriarik eta estalgarririk gabe; eta, beharbada horregatik, hainbeste arerio daukate. Baina horregatik ere zirrada haundiagoa sortzen dute.

Arestik eta Txillardegik plazaratu dizkiguten gaietan, norbaitzuren eritiziz, egia haundiak azaltzen dira, hor, begien bistan daudenak. Baina, gaiok korapilatsuegiak direnez gero, ostrukarena egiten dugu, aurpegia hegoen azpian ezkutatu. Idazle bi hauk, beren dei garratzetan, gure kontzientziak mailu baten daundadaz iratzarri nahiz ari dira. Baina, erosoago denez, lotara segitu nahi dugu; eta haserre jartzen gara, gure lozorroa eten gura digutelako.

Arestik azaleko abertzaletasuna salatu zuen, baztartuen alde hitz egin zigun, langileriaren defendatzaile bezala agertu zen, eta kezka hauk, egia hauk, hainbeste poesia

paregabean aldarrikatu zizkion gure harrizko herri honi.

Orain, Konstituzioa Madrilen egotzen ari den momentu hontan, Autonomi Estatutua erabaki beharko den atarian, Txillardegik Euskal Herriaren nortasuna eta eskubideak defendatu nahi ditu, eta lan hori bortizki egiten du. Berak erabiltzen dituen gaiak, laster, kaleko gai nagusiak bihurtuko dira. Adibidez, euskararen arazoa.

Orain euskara zeharo bazterturik dago. Baina, gure lanaren ondorioz, euskarak aurrera egiten badu, seguru nago, bat baino gehiago kontra jarriko du. Eskuindar eta ezkertiar zentralistak aurka altxatuko dira. Lehen, «hable en cristiano» esaten ziguten, inolako gupidarik gabe. Orain, era maltzurrago batez etortzen hasiak dira: «giza eskubideak» aipatzen dizkigute. Lehengo «hable en cristiano» horrek eta oraingo «giza eskubideak» delako honek funtsean, oinharri berbera daukate: **euskal gizartearen eskubideak zapaltzea.**

Lehen, espainol eta frantses batasun sakratuen izenean, euskal nor-

tasuna zapaldu ziguten legez, orain langileriaren internazionalismoa aipatzen digute, ondorio berbera, hau da, euskal nortasunaren zapalkuntza lortzeko.

Etorkinei libre utzi behar omen zaie, gure gizartean integratu nahi duten ala ez erabakitzea. Eta integratu gura ez dutenek, euskaldun baten eskubide berbera eduki behar ei dute, Euskal Herriak nolakoa izan behar duen erabakitzeko orduan. Euskaldunok, zabal dezagun ahoa, berton kaka egin diezaguten!

Ez dakit, gure etorkizuna nolakoa izango den. Baina, uste dut, hainbeste sufrimendu eta hainbeste burruka ez direla alferrikakoak izango. Nire eritiziz, espainol eta frantses batasuna dela, nahiz langilegoaren internazionalismoa dela, ez dugu inoiz onhartuko euskal nortasunaren zapalketa. BAI euskarari! Eta horren kontra egiten duenaren aurrean, etorkina nahiz San Pedro bera izan, ni behintzat biziki altxatuko naiz.

Antza denez, euskararen garrantziaz konturatzen ez direnak, asko dira oraindik, Adibidez, orain dela zenbait hilabete. EIAk mitin bat egin zuen Bilboko Kirol Pabilioian, «Galiza-Euskadi» esloganaz. Galego hizlari **guztiak** galegoz mintzatu ziren, eta EIAko **bat bakarrik** euskaraz. Gaur berton, apirilak 25, Gernikako bonbardaketa g o g o r a t u z, PNVk Deustuko kaleetan ezarri dituen muralak, erderaz daude oso osorik. Tamalgarria da, baina ba daude oraindik honelakoak. Hala ere, gazteria berri bat dator, gizatiarragoa, abertzaleagoa, gauzak aldatzeko gertua. Nik neuk gazteria hontan daukat fedea.

X. G.